



Astelehena, 2012/08/27

Kronika.net

Argazkiak

Elkarriketak

Jasota Bezala

Inkesta eta Eztabaida

Zerbitzu eta Helbideak

Agenda

Kronika Bereziak

Dokumentuak

Egin Bazkide

AURREKO EDIZIOAK

Aukeratu nahi duzun data

2012

abuztua

26

BILATU

Kronika Zaharrak

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK

KRONIKA.NET



Zelaia, Altzueta eta Olaizola pozik, lehenengo Sagardo Azokarekin

Gorenak zigilua duten 13 sagardotegiek Sagardo Azoka antolatu zuten Donostiako Aste Nagusian eta azoka arrakastatsua izan dela azaldu dute.

2012/08/23 - Osteguna

Donostiako Aste Nagusian Sagardo Azoka antolatu zuten lehenengo aldiz, Gorenak markaren (Sagardo mahaia elkarte) barruan dauden 13 sagardotegiek; tartean dira Hernaniko hiru sagardotegi: Altzueta, Olaizola eta Zelaia. Kronikara bidalitako prentsa oharrean diotenez, pozik daude lortutako emaitzarekin: «Lehenengo egunetik, espero zena baino jende gehiago izan dugu. Jende asko ibili da azokan eta bezeroak asebeteta ateratzen ziren karpatik. Lehenengo mailako generoa, kalitatezko produktua, sukaldean ere profesional finak... Sagardo Azokan murgildu diren pertsonak hori guztia topatu dute eta asko eskertu digute egindako lana. Katalunia plazan arnastu duten euskal giroarekin ere pozik agertu zaizkigu».

«Lehenengo azoka arrakastatsua izan da»

Groseto Katalunia plazan antolatu zuten azoka eta egunero, 13 sagardo ezberdin probatu, txotxetik zein botilatik, eta sagardotegiko menua afaltzeko aukera izan zuten bertaratutakoek. Eskaintza gastronomikoaz gain, zuzeneko emanaldiak ere izan ziren: otxoteak, txalapartariak, bakarlariak...

Lehenengo azoka hau arrakastatsua izan dela nabarmendu dute antolatzaileek eta oso gustora daude: «Donostiak merezi duen tokia eman dio sagardoari. Beharrezko zituen duintasuna eta protagonismoa aitortu zaizkio sagardoari, gure



edari nazionalari». Azokara gipuzkoar asko eta atzerritar ugari ere gerturatu direla gaineratu dute.

 [Zabandu!](#)

[Atzera egin](#) | [Inprimatu](#) | [Norbaiti bidali](#)

[web mapa](#) | [kontaktua](#)

THEMOVIE S.L.-k garatua, 2005